

Sarrera

BAT-en zazpigarren ale hau, mardul dator eta luze. Baina, gure ustez, euskaltzaleari onuragarri gertatuko zaio; baita anitz gogoeta iturburu ere.

Hiru Errepublika Baltikoei buruzko lanak azpimarra daitezke, agian. Hain zuzen ere, aste hauetan etorritako azken berrien arauera, herriarekiko harreman zuzena dagokien lanpostuetareko lituanieraren erabilpena ezinbesteko oinarritzat ematea erabaki denean. Bañeres-en artikulua irakurri ondoren, delibero horien ausardia neur daiteke zehazkiago. Batez ere geure inguruan ikusten dugun txepelkeria ezin larriagoa ezagututa.

Hiru Errepublika horien hizkuntz legeak argitaratzen ditugu, beren osoan. Baita beroien alderaketa bat, eta bertako jakitunen iritziak ere.

Bai Errepublika horien maila demografikoaren aldetik, bai etorkinen kopuru gaitzaren aldetik (Estonian eta Letonian, bereziki), Baltikoko gorabeherak ezin garrantzitsuagoak dira guretzat. Eta informazioa normalean eskas izaten delako, ahalegina egin dugu apur hau bederen kaleratzen.

Beste lan mordoska bat, gisa denez, Euskal Herriko egoera soziolinguistikoari buruz oratua izan da. Hiru probintzia baskongadetako datuak erabiliz prestatu den ikuspegi orokorrak, hausnarketa mamitsuak bidera ditzake. Askotan datu-faltaz arreguratu izan gara. Orain, berriz, datuon ikerketa eta ulerkuntza falta izaten dugu.

Baskongadetako eta Nafarroako ikastolen eta eskola publikoen arteko gorabeherak

ezagutzea osagarri egokia izan daiteke; nahiz batzutan (eta hauxe da Iturrama-koen kasoa) somatzen diren ondorioak oso kezagarriak izan. Bilbo-ko egoeraren ezaguera ere demografikoki eta ekonomikoki Bilbok daukan garrantzia ezaguturik, guttiz beharrezkoa da; Ibon Arbuluk azpimarratzen duen "abiapuntuaren kaxkarra", larria izan arren.

Euskararen irakaskuntzak ere kapitulu berezia behar du. Herri honen hiru laurdenek nazio-hizkuntza berreskuratuko badute, guttiz funtsezkoa da erakaspén-erlo horretan ari direnen berri zehatza izatea. Baina askotan, gehiegitan hobe, euskaltzaleek berek ez dute jakin ohi lan zail eta eskerga hori zertan den. 1966z geroztik AEKk egin duen lan gaitza, erdipurdi baizik ez da ezagutzen.

Zer esanik ez maila apalagotan taigabe beste elkarte batzuk daramatena: IKA, Labayru, Ilazki, Maizpide... Lehenagotik hasitako ekimenari eutsiz, beste datu batzu agertzen dira hemen. Oraingoan helduen ikasketei dagokienez.

Hizkuntzen "osasuna" (hizkuntzen erabilpena, beraz) soziolinguistikoki ikertu ohi da: xifreak, kopuruak, ehunekoak, estatistikak, inkestak... Baina hizkuntzaren beraren azterketaren bitartez, interferentzi maila soma daiteke; edo, beste hitzez esanda, hizkuntzen arteko menpekotza-maila. Lourdes Oñederra izan da, Dressler-en laguntzaz baliaturik, azterbide honen aldeko bultzada eman duena. Iruñeko UEUan eman zuen lehenengo irakatsaldia; eta orain lan mamitsu hau prestatu du "BAT"entzat. Sozio-linguista guztiok ematen diogu ongi-etorria.

J.M. Odriozolak egiten duen lanen segizioari eutsiz, oso interesgarria da ale honetan dakarrena. Bai Suomi-ko gorabeherak (T.Riiho-ren bidez), bai Irlanda-ko porrotari buruzkoak (Joseba Alvarez-en bidez hau; halako batez burutuko bide duen Tesiaren hitzaurre gisa), eta bai Bañeres ikasiaren eskutik (Eslobeniaren ondoren, orain Lituania aztergai), gehiago ikasteko eta irakurtzeko gogoia piztu du irakurlearengan.

Ohizko "Agendak" amaitzen du alea. Proposatzen zaizkigun Biltzarre batzu, paseak dira jadanik; edo-ta "BAT-7" hau kalerakoan gertatzen ari. On da, halere, beroien berri izatea; bertan erabilitako gaiak eta txostenak oso maiz argitaratzen baitira.

Irakurketa aberasgarria izango zaizun esperantzan.